Beterri Buruntza
Akta / Acta
Zk./ Nº 2024/10
Data / Fecha 2024/10/03

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko irailaren 16a

| **Bildutakoak:** | | |
|---|---|---|
| **Patxi Ibarguren Etxeberria** | **Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik** | Akta Zenbakia **00000010** |
| **Pepe Iparraguirre Balda** | **Andoaingo Udaletik** | Eguna **2024/09/16** |
| **Iratxe Begiristain Otegi** | **Usurbilgo Udaletik** | |
| **Jorge Segurado Iriondo** | **Urnietako Udaletik** | Iraupena **-** |
| **Nuria Fernandez Castrillo** | **Lasarte-Oriako Udaletik** | |
| **Xabier Urdangarin Lasa** | **Astigarragako Udaletik** | |

| **Asistentzia teknikoa:** | |
|---|---|
| **Julen Mungia Gorrotxategi** | **Idazkari-Kontuhartzailea** |
| **Helene del Río Laboa** | **Zuzendaria** |
| **Enara García García** | **Enplegu teknikaria** |

## Gai Zerrenda

1.- 2024/07/22(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

2.- Elkar Ekin marko berriaren aurkezpena

3.- Elkar Ekin gobernantza moldaketen onarpena

4.- 2025-2026rako Elkar Ekinen lan-esparruak zehazteko proposatutako parametroen onarpena

5.- Enpresen bisiten azalpena: ezagutzera emateko akzio plana 2024

6.- Laneratze Enpresaren pleguak: Beterri Errotuz SL-ren esleipena onartzea

7.- Mankomunitatea atxikita dagoela eta Udalhitz hitzarmena aplikatzen duela berrestea

8.- Mankomunitateko enplegatu publikoen soldataren %2ko igoera onartzea, 2024 urteari aplikatzen zaiona.

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 22/07/2024.

2.- Presentación del nuevo marco Elkar Ekin

3.- Aprobación de los ajustes de gobernanza Elkar Ekin

4.- Aprobación de los parámetros propuestos para la definición de los ámbitos de trabajo de Elkar Ekin para 2025-2026

5.- Explicación de visitas a empresas: plan de acción para dar a conocer 2024

6.- Pliegos Empresa de Inserción: aprobación adjudicación de Beterri Errotuz SL

7.- Confirmación de que la Mancomunidad se encuentra adherida y aplica el convenio Udalhitz

8.- Aprobar un incremento del 2% del salario de los empleados públicos de la Mancomunidad, lo que se aplica al

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

9.- 9.500 euroko kreditu-aldaketa onartzea, kredituak transferitzeko modalitatean, Mankomunitatearen gastu komun batzuei aurre egiteko.

10.- Galdera, erregu eta proposamenak.

ejercicio 2024

9.- Aprobación modificación de créditos, en su modalidad de transferencia de créditos, de 9.500€ para afrontar ciertos gastos comunes de la Mancomunidad

10.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- 2024/07/22(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/07/22 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeko kide guztiek alde bozkatu dute, Lasarte-Oriako ordezkariak izan ezik, bilera horretara bertaratu ez zenez, abstenitu egin da.

**2.- Elkar Ekin marko berriaren aurkezpena**

Elkar Ekin programaren edizio berriaren aurkezpena Enara Garciak egin du, Mankomunitateko Enplegu eta Formakuntza teknikariak. Horretarako, aldez aurretik bilerako kide guztiei banatu zitzaien PPTaz baliatu da.

Aurkezpena egin ondoren, denek begi onez ikusi dute eta galderarik ez zegoenez, bileratik atera da. Gainontzekoek eskertu diote aurkezpenerako egindako lana.

**3.- Elkar Ekin gobernantza moldaketen onarpena**

Puntu honetan Elkar Ekineko gizarteratze- eta laneratze-sarera eramateko Elkar Ekin programa eredu berria onartzera eraman da. Enarak aurkeztu du eta horretarako PPTaz baliatu da zein izango zen eredu berri hori. Eredu berri honetan sarea profesionalizatu egin nahi da eta eragile berriak sartu nahi dira. Gobernantza ereduan ere aldaketaren bat egin nahi da Mahai Iraunkorrean, Enplegu Sozialaren Mahai Teknikoan eta Gizarteratzeko eta laneratzeko eragileen mahaiean.

Urnietako ordezkariak galdetu du ea eredu berri hau GFAk esandakoaren erara egokitzen ari diren eta baietz erantzun dio Zuzendariak.

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

Hortaz, kide guztiek begi onez ikusi dute eta onartu dute Elkar Ekin gobernantzaren moldaketa.

## 4.- 2025-2026rako Elkar Ekinen lan-esparruak zehazteko proposatutako parametroen onarpena

Elkar Ekin eredu berrirako (2025-2026) parametro batzuk finkatu nahi izan dira. Parametro horiek Enarak bere azalpenean azaldu ditu, PPTn agertzen dira eta Zuzendariak gainetik berriro irakurri ditu. Helburua da parametro horiek minimotzat hartzea eta gero parametro minimo horiek gizarteratze- eta laneratze-sarera eramatea, azken finean, sare honek erabakiko baititu zer proiektu garatuko ditugun Elkar Ekin barruan.

Zuzendariak parametroak zeintzuk diren berriro irakurri ondoren, Urnietako ordezkariak esan du ados dagoela horiekin, hala ere, jakitearren, parametro batzuk nola identifikatzen/ justifikatzen diren jakin nahi du. Adibidez, bortizkeria matxista jasan duten emakumeak identifikatzea erraza izan daitekeela esan du, sententzia judizial bat egongo delako atzean, baina epai hori gabe, galdetu du ea nola identifikatzen diren egoera zaurgarri horietan dauden pertsonak. Zuzendariak erantzun dio batzutan ez dela erraza egoera zaurgarrian dauden pertsonak identifikatzea, baina horretaz arduratzen dela Emaktiva, eta horretarako parametro desberdinak erabiltzen dituztela. Hala ere, batzutan pertsona horiek modu objektiboan identifikatzea zaila dela adierazi du.

Azkenik, parteide guztiak alde agertu dira parametro hauek erabiltzearekin.

## 5.- Enpresen bisiten azalpena: ezagutzera emateko akzio plana 2024

Zuzendariak esan du Mankomunitatearen lehenengo urtea dela eta horregatik emaitzak neurtzea zaila dela, askotan emaitzak oraindik lortu ez direlako, eta bestetik, oso ondo ez daudelako identifikatuak zeintzuk diren lortu beharko genituzkeen emaitzak. Hala ere, Excel bat pasa zitzaien ordezkari guztiei, ikusteko udalerri guztietako enpresetan bisitak egiten ari garela, gu ezagutzera eramateko eta nola lagundu diezaiekegun ezagutzeko. Gainera, irailetik abendura tarte gehiago duela gure enpresa teknikariak bisita horiek egiteko eta horretan zentratuko dela urte amaiera arte. Gainera, udalerri batzutako enpresak gehiago interesatzen dira gure zerbitzuetaz baina azken finean, udalerri guztietako enpresetara modu ordenatu eta proportzional batean eragiteko, udal-ekarpenen arabera kalkulatutako bisitak egiten ari garela esan du.

Usurbilgo ordezkariak galdetu du nola kontaktatzen ditugun enpresa horiek eta Zuzendariak erantzun dio horretarako, enpresa horiek ezagutzeko, datu base desberdinak

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

erabiltzen ari garela: Eustat-ena, erositako beste batzuena, GFAk pasatako batzuk… Horiek denak uztartzen ari garela esan du.

Lehendakariak gehitu du azken finean Mankomunitateko emaitzak parametrizatu behar direla eta kontrolatu behar direla ere gure teknikariak egiten dituzten ekintza guztiak (bisitak barne). Gainera, Zuzendariak esan du gainerako garapen-agentziei eta mankomunitateei 5 urte daramatzatela enpresetara iristen, lehen harremana izateko.

6.- **Laneratze Enpresaren pleguak: Beterri Errotuz SL-ren esleipena onartzea**

Idazkari-Kontuhartzaileak gogorazi die eskualderako laneratze-enpresa bat kontratatzeko lizitazioa irekita daukagula eta, sobre irekiera guztiak amaiatu ondoren, esleipena egitea tokatzen dela. Beterri Errotuz SL da Kontratazio-mahaiak proposatutako esleipenduna eta horretarako akta guztiak bidali zaizkiela gogorarazi zaie.

Gobernu Batzarreko kide guztiak onartu dute Beterri Errotuz SL izatea kontratu honen esleipenduna.

7.- **Mankomunitatea atxikita dagoela eta Udalhitz hitzarmena aplikatzen duela berrestea**

Idazkari-Kontuhartzaileak gogorarazi die udal-ordezkari guztiei Mankomunitatea hasieratik Udalhitz hitzarmena aplikatzen duela langileen lan-baldintzak arautzeko eta aplikatzeko, besteak beste, urteko ordu kopurua, Elkarkidetzarako ekarpena…

Hala ere, esan die Mankomunitatea Udalhitz hitzarmenera atxikitzeko konfirmazioa egitea komeniko litzatekeela, eta, hortaz, udal-ordezkari guztiak ados azaldu dira Mankomunitatea Udalhitz hitzarmenera atxikitzeko eta hura aplikatzeko.

8.- **Mankomunitateko enplegatu publikoen soldataren %2ko igoera onartzea, 2024 urteari aplikatzen zaiona.**

Idazkari-Kontuhartzaileak esan die 2024 urterako %2ko soldata igoera onartu dela, gehi beste 0,5%ko igoera baldintzatu bat dagoela.

Usurbilgo ordezkariak esan die beraiek Usurbilgo udalean dagoeneko %2,5ko soldata igoera onartu zutela eta zain daudela beste 0,5%ko igoera aplikatzeko.

Idazkari-kontuhartzaileak esan du kontu hau errebisatuko duela eta esango diela zerbait.

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

Hala ere, udal-ordezkari guztiak ados agertu dira, oraingoz, %2ko soldata-igoera aplikatzeko eta gero, gainontzeko 2024ko igoera zein izan beharko lukeen argitzerakoan, behar bada, erabakiko dutela zer egin bestelako igoera gehigarriarekin.

**9.- <u>9.500 euroko kreditu-aldaketa onartzea, kredituak transferitzeko modalitatean, Mankomunitatearen gastu komun batzuei aurre egiteko.</u>**

Idazkari-kontuhartzaileak esan die kreditu transferentzia bat egiteko asmoa dagoela, gastu arrunt batzuetako partidei kreditua gehitzeko. Horretarako, kreditu globala partidatik gastu arruntz horietako partidetara (garbiketa, altzariak eta ekipo-informatikoak) dirua transferitu nahi dela. Guztira 9.500€ko transferentzia izango litzatekeela.

Udal-ordezkari guztiak alde azaldu dira eta onartu dute kreditu aldaketa hau.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

**10.-<u>Galdera, erregu eta proposamenak.</u>**

Zuzendariak hartu du hitza pare bat gai aipatzeko:

a) TEE 2024-2025ko edizioarekin arazoak ditugula gaur egun adierazi du, hain zuzen, formakuntza zentroarekin. Aurreko edizioetan Usurbilgo eraikuntza batean egin omen ziren langileen formakuntzak kontratuak hasi baino lehen, kontua da, orain, Usurbilek ez duela eraikuntza hori, Lanbidetik homologatua zuela horretarako, beraz, Lanbideren homologazioa duen instalakuntzaren baten premian gaudela adierazi du Zuzendariak. Andoaineko eraikin batean egiteko asmoa zegoela baina baldintzak ez dituela betetzen esan du. Astigarragako alkateak esan du galdetuko duela bere udalean ea tokiren bat dagoen horretarako, nahiz eta homologatuta ez daukaten ezta toki bat. Lehendakariak ere esan du galdetuko duela Hernanin.

b) Zabalduz Kooperatibarekin dugun hitzarmenaren baitan, inserzio-soziolaboraleko teknikari batek laguntzen zigun egoera zaurgarrian dauden pertsonak artatzen eta eskualdeko udaletako zerbitzu sozialekin harremanak egiten. Kontua da, uztailean pertsona horrek Zabalduz erakundea utzi zuela, baina orain, pertsona berri bat kontratatu dute urte bukaera arte lan horiek egiteko. Beraz, oraingoz, hori beteta izaten jarraituko dugu.

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

c) Energia-planaren arloan, bi mahaien deialdia egin nahi dela adierazi du. Lehenengo, mahai-teknikoa eta ondoren politiko-teknikoa, azken hau, batez ere, mahai teknikoan proposatutakoarekin ados gauden ikusteko. Proposamena da irailaren bukaeran edo urriaren hasieran mahai-teknikoa egitea eta urriaren 21n, goizeko 12:30tan, politiko-teknikoa.

Bestalde, Hernaniko ordezkariak aurkeztu du energia bulegoaren gaia. Oraindik ez dela erabakirik hartu ezta ezer ez, baina bere ideiaren proposamena adierazi du. Kontua da Hernanin energia-bulegoa dutela duela bi urtetatik eta zerbitzu hori emateko bitarteko funtzionario bat kontratatu dutela programaren bidez. Hala ere, programa aurten bukatuko dela esan du eta beraiek duten hasierako ideia dela Mankomunitateak hartzea bere gain zerbitzu hori.

Usurbilgo ordezkariak gehitu du beraiek ere zerbitzu hori ematen dutela eta horretarako Lehen Aukerako pertsona bat dutela kontratatua urtebeterako. Hernaniko ordezkariaren ideia (Mankomunitateak hartzea bere gain zerbitzu hori) ondo ikusi du, baina esan du azkenean ideia hori ez bada gauzatzen, beraiek zerbitzu hori ematen jarraituko dutela.

Lehendakariak eta Hernaniko ordezkariak esan du buelta bat eman behar zaiola gai honi eta udal-ordezkariak gai honetan pentsatzen hasteko gonbidapena luzatu du.

d) Alde batetik, Zuzendariak esan du Turismoari dagokionez, dagoeneko, GFAko dirulaguntza gure izenean dagoela. Hala ere, oraindik turismo teknikari bat %100n izan behar dugula esan du, hori baita eskatzen dutela Aldunditik. Bestetik, Behemendiko arduradunekin bildu zela esan du eta bi ondorio ateratzen dituela bertatik:

- hala badagokio, Mankomunitateko turismo-teknikariaren lanpostu berria ateratzen denean, prozedura modu irekian egiteko eskatzen dute, hala nahi izanez gero, Behemendiko turismo-teknikariak bertan parte hartu ahal izan dezan.

- turismo-arloko harremanak adiskidetasunez amaitzen ez badira, arazoa Gobernu Batzordera eraman beharko dute (Donostia eta beste udalerri batzuk barne hartzen ditu), bai eta Turismo teknikariaren kaleratzeagatiko kalte-ordainaren ordainketara ere. Azken horiek iradokitzen dute eskualdea osatzen duten udalerrietako 6 udalei eska dakiekeela 12 urteko zerbitzuengatik.

Azkenik, Turismoaren inguruan, GFA prestatzen ari dela Behatoki moduko bat turismoko datuak eta indizeak baitan hartzen dituena. Oraingoz, gure eskualdean, Urnietako

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

datuetan zentratuko dira bertan ostalaritza eta hotel eskaintza handia baitago. Hala ere, datu base moduko bat sortu nahi dutela adierazi zuten, udalerri guztien datuekin eta herraminta hori nola erabili ikasteko formakuntza bat emango digutela esan zuten

Bukatzeko, Lehendakariak gehitu du datorren Gobernu Batzarra irailaren 30n, goizeko 12:30tan izango dela

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 13:35minutu zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**
**Lehendakaria**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 22/07/2024.**

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión del 22/07/2024, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma y todos los miembros de la Junta de Gobierno votan a favor, salvo la representante de Lasarte-Oria, que no asistió a la reunión, por lo que se abstiene.

**2.- Presentación del nuevo marco Elkar Ekin**

La presentación de la nueva edición del programa Elkar Ekin ha sido realizada por Enara Garcia, Técnica de Empleo y Formación de la Mancomunidad. Para ello ha utilizado el PPT que previamente se entregó a todos los miembros de la reunión.

Tras la presentación, todos lo han visto con buenos ojos y al no haber preguntas, sale de la reunión. El resto agradece el trabajo realizado para la presentación.

**3.- Aprobación de los ajustes de gobernanza Elkar Ekin**

En este punto se ha llevado a la aprobación de un nuevo modelo de programa Elkar Ekin para su incorporación a la red de inclusión socio-laboral de Elkar Ekin. Enara presenta el nuevo modelo utilizando el PPT. En este nuevo modelo se pretende profesionalizar la red e incorporar nuevos agentes. El modelo de Gobernanza también pretende introducir

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

algún cambio en la Mesa Permanente, en la Mesa Técnica de Empleo Social y en la Mesa de Agentes de Inclusión Sociolaboral.

El representante de Urnieta pregunta si este nuevo modelo se está adaptando a lo dicho por la DFG y la Directora responde que sí.

Por lo tanto, todos los miembros dan el visto bueno y aceptan la adaptación de la gobernanza Elkar Ekin.

**4.- Aprobación de los parámetros propuestos para la definición de los ámbitos de trabajo de Elkar Ekin 2025-2026**

Se ha pretendido fijar unos parámetros para el nuevo modelo Elkar Ekin (2025-2026). Estos parámetros los explica Enara, aparecen en la PPT y la Directora los vuelve a leer. El objetivo es considerar estos parámetros como mínimos y luego trasladarlos a la red de inserción sociolaboral, ya que ésta es la que va a decidir qué proyectos vamos a desarrollar dentro de Elkar Ekin.

Tras una nueva lectura de los parámetros, el representante de Urnieta manifiesta su conformidad con los mismos, de todas formas, le gustaría saber cómo se identifican/justifican algunos parámetros. Por ejemplo, señala que identificar a las mujeres que han sufrido violencia machista puede ser fácil, porque habrá una sentencia judicial detrás, pero sin esa sentencia pregunta cómo se identifican a las personas que se encuentran en estas situaciones vulnerables. La Directora le contesta que en ocasiones no es fácil identificar a las personas en situación de vulnerabilidad, pero Emaktiva se encarga de ello y para ello utilizan diferentes parámetros. No obstante, señala que en ocasiones es difícil identificar a estas personas.

Finalmente, todos los participantes se muestran a favor de la utilización de estos parámetros.

**5.- Explicación de visitas a empresas: plan de acción para dar a conocer 2024**

La Directora dice que es el primer año de la Mancomunidad y que por eso es difícil medir los resultados, porque muchas veces no se han conseguido los resultados, y por otro lado, porque no están muy bien identificados los resultados que deberíamos obtener. No obstante, se pasó un Excel a todos los representantes para ver que estamos haciendo visitas a empresas de todos los municipios para darnos a conocer y para saber cómo les podríamos ayudar. Además, nuestra técnica de empresa tiene más tiempo de septiembre a diciembre para realizar estas visitas y se centrará en ello hasta final de año. Además, dice que en algunos municipios las empresas están más interesadas por nuestros servicios, pero en definitiva, para influir de manera ordenada y proporcional en las empresas de todos los municipios, estamos realizando visitas calculadas en función de las aportaciones municipales.

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

La representante de Usurbil pregunta cómo contactamos con estas empresas y la Directora contesta que estamos utilizando diferentes bases de datos para conocer a estas empresas: de Eustat, otras adquiridas, algunas que nos han pasado desde la DFG... Dice que estamos uniendo todos ellos.

La Presidenta añade que, en definitiva, hay que parametrizar los resultados de la Mancomunidad y controlar todas las acciones que realizan nuestras técnicas (incluyendo las visitas). Además, la Directora comenta que a las demás Agencias de Desarrollo y Mancomunidades les lleva 5 años llegar a las diferentes empresas para tener un primer contacto.

**6.- Pliegos Empresa de Inserción: aprobación adjudicación de Beterri Errotuz, S.L.**

El Secretario-Interventor les recuerda que tenemos abierta una licitación para la contratación de una empresa de inserción para la comarca y que una vez finalizadas todas las aperturas de sobres, procede la adjudicación. Beterri Errotuz, S.L. es la adjudicataria propuesta por la mesa de contratación y se les recuerda que se les han remitido todas las actas para ello.

Todos los miembros de la Junta de Gobierno aceptan que el adjudicatario del presente contrato sea Beterri Errotuz, S.L.

**7.- Confirmación de que la Mancomunidad se encuentra adherida y aplica el convenio Udalhitz**

El Secretario-Interventor recuerda a todos los representantes municipales que desde el inicio la Mancomunidad aplica el convenio Udalhitz para la regulación y aplicación de las condiciones de trabajo del personal, entre otros, el número de horas anuales, aportación a Elkarkidetza...

No obstante, les comenta la conveniencia de confirmar la adhesión de la Mancomunidad al convenio Udalhitz, por lo que todos los representantes municipales han mostrado su conformidad a la adhesión de la Mancomunidad al convenio Udalhitz y a su aplicación.

**8.- Aprobar un incremento del 2% del salario de los empleados públicos de la Mancomunidad, lo que se aplica al ejercicio 2024**

El Secretario-Interventor les informa que para el año 2024 se ha aprobado un incremento salarial del 2% más un incremento condicionado del 0,5%.

La representante de Usurbil les comenta que ellos ya aprobaron un incremento salarial del 2,5% en el Ayuntamiento de Usurbil y que están a la espera de aplicar otro incremento del 0,5%.

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

El Secretario-Interventor dice que revisará esta cuestión y les dirá algo.

No obstante, todos los representantes municipales están de acuerdo en que, de momento, se aplique un incremento salarial del 2% y que a la hora de aclarar cuál debería ser el incremento del 2024 restante, si es necesario, decidirán qué hacer con otro incremento adicional.

**9.- Aprobar modificación de créditos, en su modalidad de transferencia de créditos, de 9.500 para afrontar ciertos gastos comunes de la Mancomunidad**

El Secretario-Interventor les informa de la intención de realizar una transferencia de crédito para incrementar el crédito a partidas de gastos corrientes. Para ello, se quiere transferir dinero de la partida de crédito global a las partidas de estos gastos corrientes (limpieza, mobiliario y equipos informáticos). Una transferencia total de 9.500 €.

Todos los representantes municipales manifiestan su conformidad y aceptan esta modificación de créditos.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos

**10.- Ruegos, preguntas y propuestas**

Toma la palabra la Directora para comentar un par de cuestiones:

a) Indica que con la TEE 2024-2025 actualmente tenemos problemas con el centro de formación. La Directora dice que las formaciones de los trabajadores antes del inicio de los contratos, en ediciones anteriores se habían realizado en una construcción de Usurbil, lo cierto es que ahora Usurbil no tiene esa construcción, que la tenía homologada Lanbide para ello, por lo que estamos necesitados de alguna instalación homologada por Lanbide. Dice que la idea era hacerlo en un edificio de Andoain pero no cumple las condiciones. El Alcalde de Astigarraga dice que preguntará si en su Ayuntamiento hay algún lugar para ello, aunque no tienen homologado ni un lugar. La Presidenta también ha dicho que preguntará en Hernani.

b) En el marco del convenio con Zabalduz Kooperatiba, un técnico de inserción sociolaboral nos ayudaba a atender a las personas en situación de vulnerabilidad y a relacionarse con los servicios sociales de los ayuntamientos de la comarca. El caso es que en julio esta persona abandonó la organización Zabalduz, pero ahora

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

se ha contratado a una nueva persona para realizar estos trabajos hasta final de año. Por lo tanto, de momento, esto se seguirá cumpliendo.

c) En materia de plan energético, indica que se quiere convocar dos mesas. Primero la mesa técnica y después el político-técnica, esta última sobre todo para ver si estamos de acuerdo con lo propuesto en la mesa técnica. La propuesta es celebrar una mesa técnica a finales de septiembre o primeros de octubre y el 21 de octubre a las 12:30 horas, la mesa político-técnica.

Por su parte, la representante de Hernani presenta el tema de la oficina de energía. Indica que todavía no se ha tomado ninguna decisión ni nada, pero que presenta su propuesta. El caso es que cuentan con una oficina de energía en Hernani desde hace dos años y han contratado mediante el programa a un funcionario interino para prestar este servicio. No obstante, dice que el programa finalizará este año y que la idea inicial que tienen es que la Mancomunidad asuma este servicio.

La representante de Usurbil añade que ellos también prestan este servicio y para ello tienen contratada a una persona de Lehen Aukera por un año. Ve bien la idea de la representante de Hernani de que la Mancomunidad se haga cargo de este servicio, pero dice que si al final esa idea no se hace, ellos van a seguir prestando ese servicio.

La Presidenta y representante de Hernani dicen que hay que dar una vuelta a este tema e invita a empezar a pensar sobre este tema a los representantes municipales.

d) Por un lado, la Directora dice que en el caso de Turismo, ya está a nuestro nombre la subvención de la DFG. No obstante, dice que todavía tenemos que tener un técnico de turismo al 100%, que es lo que piden desde Diputación. Por otra parte, dice que se reunió con los responsables de Behemendi y saca dos conclusiones:

- cuando, en su caso, salga el nuevo puesto de Técnico/a de Turismo en la Mancomunidad, solicitan que el procedimiento se haga de forma abierta para que, si así lo quiere, la Técnica de Turismo de Behemendi pueda participar en el mismo.

- en caso de no concluir las relaciones en materia de turismo de manera amistosa, tendrán que llevar el problema a su Junta de Gobierno (el cual engloba a Donostia-San Sebastián y a otros municipios), así como el asunto del pago de la indem-

ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e

nización por despido de la Técnica de Turismo, que sugieren que puede llegar a ser solicitado a los 6 Ayuntamientos de los municipios que conforman la comarca por los 12 años de servicios prestados

Por último, en el área de Turismo, la DFG está elaborando un Observatorio que integra los datos e índices turísticos. De momento, en nuestra comarca, se centrarán en los datos de Urnieta, donde existe una gran oferta de hostelería y hoteles. No obstante, manifestaron su voluntad de crear una especie de base de datos, con los datos de todos los municipios y nos darán una formación sobre cómo utilizar esta herramienta

Para finalizar, la Presidenta ha añadido que la próxima Junta de Gobierno se celebrará el 30 de septiembre a las 12:30 de la mañana.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria a las 13:35 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E., / Vº Bº**
**La Presidenta**



EKS | CSV: ESKUca325d0d-a19e-41fa-b50a-f607e5ee5e8e
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024BG010010-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**JULEN MUNGIA GORROTXATEGI**
**Idazkari-Kontuhartzailea**
**Data:** 2024/10/03 12:16:52

**Digitalki sinatua:**

**Patxi Ibarguren**
**Lehendakaria**
**Data:** 2024/10/03 13:46:40